


Zeinkeri agur esateko *Unea heldu da*

Hamar urteko ibilbidearen ostean, Zeinke taldeak iragarri dau 2025ean agur esango deusala oholtzei, *Unea heldu da* izeneko atzen bireagaz. Jokin Uriarte, Aitor Ipiña eta Mikel Muesasek osotuten dabon hirukoteak kontzertuak eskainiko dauz abuztutik abendura: Lemoako jaietan hasita, Artean, Ugaon eta beste leku batzuetan joko dabe. Disko bi eta ibilbide oparo baten ostean, Karabie Gaztetxean emongo deusie amaiera euren ibilbideari. **13. orrialdea**



Zeanuri, Areatza eta Zeberioaren txandea

Oporretako atzen hamabostaldian ez da deskantsurako tarterik egongo gurean, hurrengo hurrengo, Zeanuri, Areatza eta Zeberion ospatuko dira-ta jaiak.

Zeanuriko jaiak izango dira lehenengoak, abuztuaren 14an botako dabe txupina eta lau eguneko festearen ostean, hilaren 17an egingo dabe atzenengoz herriko txistulariek, gauerdian, Hiru Zubiak ibilbidea. Billaroztarrek barriz, abuztuaren 23an botako dabe txupina eta jaiak zortzi egunez luzatuko dira, abuztuaren 30era arte, tanbor zaraten artean. Oindino Areatzako jaiak amaitu barik, hilaren 28an Zeberioko Sandoni jaietako txupinazoa botako da eta jaiak ez dau geldialdirik izango urri lehenengoaren 2ra arte.

Zeberioko egitaraua oindino publikoa ez dan arren, Udalak aurreratu dau Tio Teronen Semeak eta Porrotx eta Marimotots egongo dirala Sandonietan. Musikeari jagokonez, Zeanurin Ezpalak eta Heitxi, eta Areatzan Chuchin Ibañez y Los Charros, Alarma Morea eta Arene 6 dira azpimarratuteko emonaldiak. **5., 6. eta 7. orrialdeak**

Argazkia: Miren Idigoras.



LEMOA

Mikel Pagazaurtunduarentzat bigarren txapela

Garagarilaren 12an Lemoan jokatu zan Bizkaiko Artzai Txakurren Txapelketearen hirugarren edizinoa, eta Mikel Pagazaurtundua lemoaztarak Lay border coliegaz bigarren ez irabazi eban. Igazko txapela defenduz, 264 puntugaz lehenengo geratu zan. **6. orrialdea**



ZEBERIO

Energia aholkularitza zerbitzua martxan zeberioztarrentzat

Nerbioi-Ibaizabal Mankomunitateak energia aholkularitza zerbitzua ipini dau martxan. Fakturak ulertu, konsumoa murriztu eta Bonu Sozialari buruzko informazinoa jasoteko aukerea egongo da, Ugaon, aurrez aurre, hileko bigarren eta laugarren martitzenetan. **7. orrialdea**



ARRATIA

Javi Morato eta Xabier Artetxe sarituak Begitu-lagun kanpaina

Begitu-lagun barriak egiteko kanpaina martxan euki dau Begitu-lagun, hori dala-ta garagarilaren 28ra arte Begitu-lagun egin diranen edo Begitu-lagun izan eta lagun bat ekarri dabenen artean sari potolo bi zozketatu ditu aldizkariak.

Eneko Atxaren ENEKO jatetxeko bi personarentzako Sutan menua Areatzako Javi Moratok irabazi dau eta Orduña Plaza Bainuetxean lagun birentzako astegoiaren pasa Xabier Artetxe igorreztarak.

Abendura bitartean egiten diran bazkide barrien artean beste sari potolo bi zozketatuko dira. **6. orrialdea**

Literatura txokoa

ZOO

Goiatz Labandibarren Zoo liburua dakart oingoan txoko honetara, arrazoi askorengaitik; irakurzale-tasuna bultzatuteko, irakurri ahala dibertiduteko, barre egiteko eta ondo pasetako.

Oporrak pasetako hain bogan dagozan kanpinetan dagoz giro-tuta hamabi narrazino laburrak (ipuinak).

Liburuaren azaleko irudiari erreparetea besterik ez dago narrazinoen giroa usainduteko. Honeexek dira atalen izenburuak: Programa, Azkura, Aquagym, Zilbor hestea, Kukua, Aldra, Hamakaldia, Gonbidapena, Miss Karaoke, Iniziazioa eta Ojigi.

Kanpinetan era askotako faunea agertuten da, bizitzako edozein egoeratan moduan. Animalia asko

topauko dozuz liburuan zehar, bakotxak daukazan nortasun eta jokamoldeakaz. Benetako zooa topauko dozu, hanka biko, lau hankakoa, eta hanka gehiagokoa.

Gizakien portaerak askotan animaliakaz lotzean doguz. Hori da hain zuzen be nagusituten dan metaforea narrazinoen irakurketan aurrera egin ahala.

Bertan kontetan diran istorioak benetakoak zein asmatuakoz, guzti-guztiak errealek izan daitezke.

Liburua irakurri nebanetik, makina bat bider identifikau dodaz neure bizipenak bertan. Edonork topauko dauz, eta bere egin; izan familia-giroan, taberna-giroan, lanean, ospakizun-giroan... Kontetan diran istorioak argiak dira eta ulerterrazak. Personen arteko

hartu-emonak umorez tratetan dauz idazleak eta sasoi hone-takoak, opor-girokoak, dira.

Horregaitik aukera ederra daukazu, irakurle, liburu honegaz gozatuteko.

Kontakizun batzuk gustukoak izango dozuz. Seguru zuri, irakurle, gertatutako zeozer identifiketako aukerea topauko dozula. Idazkera, erraza bestean da aberatsa, eta ez dozu nekerik izango liburuan aurrera egiteko.

Goza egizu, hortaz, irakurri bi-tartean!

Maite Bernaola Etxebarria



Goiatz Labandibar
Zoo
Elkar, 2025
128 orrialde

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Garagar. 28tik abuztuaren 3ra

Ibarrola. Zeanuri. Arregia kalea 1
Tel.: 94 673 93 95 eta 620 262 937

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano. (26-1)

Abuztuaren 4tik 10era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Sarasketa. Amorebieta-Etxano. (2-8)

Abuztuaren 11tik 17a

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Iruarizaga. Amorebieta-Etxano. (9-15)

Abuztuaren 18tik 24ra

Rodríguez Martínez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano. (16-22)
Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara
Cometza, Ana. Francisco Kortabarría 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

AUM 94 631 17 17 / *mankomunitatea.*

arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / *gorbeialde@gorbeialdea.com*

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / *kulturetxea@igorre.net*

Euskotren 94 433 33 33 / *euskotren.eus*

Areatzako Notarioritza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / *info@erota.eus*

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / *www.arratiakomusikaeskola.eus*

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 Linea. Bilbo-Galdakao

Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era orduro.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-

Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik

21:20ra orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00; 11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Arteara. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrera. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11 Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik. Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean. Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik. Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

* **Adi udako ordutegiari**

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** *begitu@begitu.eus*. **Webgunea:** *www.begitu.eus*. **Zuzendaria eta publizidade arduraduna:** Iñigo Iruarizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** *inigoirua@begitu.eus*. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** *beazpiri@begitu.eus*. **Erredakzinoa:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** *asierabrisketa@begitu.eus*. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Jokin Totorika (Arantzazu, Areatza eta Artea) eta Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearenak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikau, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzuz eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



ZEURE BERBEA

Murrizketak
Arteako osasun-
etxean

Eragile sozial eta alkarte guztiak batu eta antolatu gara Artean, Osakidetzak bagilearen 2an hasita indarrean ipini dauan lehen mailako osasun arreta zerbitzuen berrantolaketea dala-ta gure desadostasuna adierazo eta herritarron eskubide sozialak defendiduteko.

Kalidadezko osasun zerbitzua aldarrikatuten dogu. Egunez egun ahulduten doan osasun sistema publiko bat ikusten dogu eta horrek larriki arduratuen gaitu. Onuragarria dan berrantolaketa baten moduan saldu gura izin deuskue herriko mediku-etxean artatzea asteko bi egunetara murriztutea, ustez itxarote-zerrendea hobetuko dalakoan. Badakigu, ostera, neurri hau zerbitzuen prekarizazioan ondorioz hartutakoa dala.

Bizirik dagoan herria da gurea, osasungintza zein hezkuntza moduko oinarizko zutabeak zaindu eta defendiduten dauzana. Artean badakigu, historikoki mantenu doguzan baliabideak galtzea herriak bizia galtzea dala eta konsultategian egunero mediku artatzea jasotea urte luzez daukagun baliabidea dogula.

Lehen mailako osasun arreta zerbitzu egokia eskatzen dogu, ze gitxiago! Herritarron osasuna eta ongizatea manteneduteko

funtsezkoa da lehen mailako arreta. Berau kalidadezkoa danean komunitatean integratu dago, hurbilekoa da, lekuan lekuko ezaugarri eta beharizanetara sentibera da eta honek herritargoa inpliketan dau osasun zerbitzuen plangintzan eta eskaintzan. Horregaitik gure exijentziak ondoko honeek dira: batetik, egunero mediku eta erizainan atentzino presentziala bermatutea herrian, gitxienez lehengo ordutegian. Bestetik, mediku artatzerako itxarote-zerrendea murriztutea.

Horretarako, neurri bi honeek ezinbestekoak dirala pentsetan dogu:

1-. Gomendatuten diran paziente-mediku ratioak errespetatu eta medikuen kontratazioa handitutea.

2-. Lehen mailako arreta zerbitzuetako lantaldea behar dan moduan osotutea, horretarako administraria kontratauta.

Gure komunitatearen bizimoduak erdigunean ipinten doguzalako, ez dogu osasungintzan murrizketarik onartuko eta batuta eta antolatuta jarraituko dogu. Adi aurrerantzean deituko diran ekimen eta deialdietara!

KAFRANGAK TALDE FEMINISTEA, MIKEL DEUNA JUBILATUEN ELKARTEA, ARTEA SAREA, ANOTS GURASO ELKARTEA, KOKOMARROAK ALKARTEA, GANGORRI DANTZA TALDEA ETA BASOA DEFENDATZAILEEN ETXEA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, **BEGITU** eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: beginu@beginu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (LXXII).
Kale berbakunea sustatu guran

MAURIZIAREN LETRAK

-Aupa hi! Zelan **habil**!
-Ondo **gabizek**!
-Ze egiten **dok** ba walkman zahar horregaz?
-Maurizia eta Leonen zinta bat topau **joat** eta entzuten **ñabik**. Letra baragarriak **jekozak** gero!
"Gizonak behar badau bere deskantsue andrea hartu deiela zaharra ta (ai) antzue, andreak behar badau bere deskantsue gizona hartu deiela gazte lumatsue".
-Baragarria **dok** benetan!
-Ikaragarria!
*Antzua (e): *esteril*.
*Lumatsua (e): luma asko dituana.

ERETXIA

Imajinetan
dozu txosna
bako jairik?

Guk ez. Txosnak ez dira edariak zerbitzatzeko barra hutsak. Askoz gehiago dira: jai herrikoien bihotza, alkartuteko eta alkar zaintzeako guneak, herriak bere burua ospatuten dauen lekua. Gure izateko moduaren parte dira.

Txosna bakotxaren atzean, borondatez lan egiten dauan jentea dago, eta euren lanari esker izaten doguz txosnak. Izan be, txosna batek ez dau bakarrik suposatzen barran txanda egitea, atzetik lan mordo dago, hala nola, eskaerak egin eta kudeatu, txosnea bera antolatu, txandak antolatu, garbiketak egin... Adin guztietako lagunek osotutako taldeak dira honeek, eta eurei esker, jaietarako gune zabal, parte-hartzaile eta herrikoiak daukaguz. Bertan tradizioak elikatzen dira, kulturea bultzatzen da, eta auzokideen arteko loturak sendotuten dira, beti be borondatezko lana dala medio.

Eta irabazi ekonomikoak? Arratian bertan badaukaguz hainbat alkarte desbardin gure herriko jaietan txosnak ipinten dabezanak; gaztetxe, kirol, kultur... taldeak adibidez. Horreen irabaziak, alkarte bakotxaren beharizanak asetzeko bideratuta dagoz, holan, kontzertuak eta ekintzak antolatzeke, materiala erosteko... Eta zelan ez, hurrengo urteko jaiak antolatuteke erabiltzen dira irabaziak. Ez hori bakarrik, gainera, irabaziak antolatutako hori, herriari eskaintzen jako. Hau da, herritik jasoa herriari emonaz.

Hori dala-ta, txosnak festa soila baino askoz gehiago dira. Gure oroimen kolektiboaren parte dira. Gure nortasun partekatua adierazle. Tresna politikoak, sozialak eta kulturalak dira. Gure ahotsa dira. Eta guzti hori babes-tu gura dogu.

Horregaitik, ekimen hau jari dogu martxan: txosnak Euskal Herriko ondasun immaterial izen-



BIHOTZ LEKUONA
Txosnak. Gureak, danonak
ekimena

tatzea. Merezki dabelako, gureak diralako, beharrezkoak diralako eta etorkizunean be hor egon daitezana.

Denpora luzean burukatuten gabizen gatxa gero eta indartsuagoa bilakatzen dabil, TicketBAI txosnetan sartzeako intenzioa hain zuzen be. TicketBAI ezetuten ez dabenentzat, foru aldundiek sortutako proiektu bat da, iruzur fiskala ekiditea helburu dauana. TicketBAIk aukera emongo deutse foru ogasunei eskualdean jaulkitzen diran faktura guztien jarraipena egiteko, batez be eskudirutan kobratu ohi diran jarduerenak. Sistema honek, faktura eta tiket guztiak identifiketan ditu. Holan, egiten diran transakzio guztiak arakatu eta jagokiezan zergak kobratu ahal izango ditue.

Guk hau saihestu gura dogu, eta hori lortzeako, uda osoan zehar sinadurak batzean ibiliko gara. Herriz herri, jairik jai, txosnaz txosna eta kuadrillaz kuadrilla, aldarrikapen hau zabaltzen eta ekimen honentzako babes eskatzen.

Sinatzeke aukera bi egongo dira. Alde batetik, Euskal Herriko jai guztietan sinadura orriak eskuragarri egongo dira. Beste alde batetik, online be sinatu daiteke, www.txosnak.eus webgunean.

Zuk be txosna barik herrietako jaiak gauza bardina ez dirala uste badozu... egin bat ekimenagaz eta sinatu!

Lortu daigun txosnak Euskal Herriko ondasun immaterial izentatzea!



LUMATUTEN



GONTZAL MENDIBIL

Dana emon
biar yako
maite dan
askatasunari

Esteban Urkiaga, gure poetarik handienetakoa jaio zaneko 120 urte beteten dira agorrian (abuztuaren 3an). Laukizen jaio eta 4 urtegaz Mungiaratu zan familia. Lauaxeta ezizena, bera jaio zan baserriaren izenaren laburtzetik dator: "Lau haizetara".

Espainiako gerra hasiz batera, Euzkadi egunkariko euskal ataleko zuzendari izentau eben eta euskal gudarosteko intendentziako komandante. Gernika bonbardeau eta pare bat egunera, hau da, 1937ko apirilaren 29an, Gernikara joan zan itzultzaile modura, La Petite Girondeko guerra korresponsal frantsesari Kondor Leginoak egindako bonbardaketaren ondorioak erakustera.

Tropa frankistek harrapau eta Gasteizko kartzela bihurtua eukien karmeldarren komentura

eroan eben eta lasterrera fusilau eben hogeta hamaika urte besterik ez eukazanean. Gure memorian eta bihotzean gertzen jakuz bere poema barri-tzaile eder esanguratsuak:

"Amayur gaztelu baltz ori, -berreun gudari oso sumin-zaintzen zaituben zaldun onak, Naparra-aldez egin dabe zin...".

"Aberri-minez kantari, Mendi eze, ikurri eder aske nai zaitut axian. Amar gasteren lerdena, makilla luzez bidian Mendi-bitxidori berdiok arin or duaz kantari: 'Dana emon biar yako maite dan askatasunari'.

"Itxaso orren narru nabarra pantera batena dirudi! Espe-tzeko atezain zarra, itxi nagik goxeko bidari. Tori giltzok, urrezko giltzok, ta bete egikek itxas-miña. Axioin egal-puntan daukok, iñok txastau bako lurriña!".

"Goiz eder onetan erail bear nabe/txindor baten txintak gozotan naukela?/El naiten leyoa begiok intz gabe. Gorbei barna yatort kañoi-ots itzela:/or egazkin-egak odei-lapur doaz...".

"Agur, ene herri, Jaunak Na-roa, Aberri eder argira!/Neure nega-rrak jarion naukan,/zeure men-diari begira. Seme bat zeukan, baña etsaiak,/kendu eutsoen, biotza./Soin ederra ixuri yakon,/maietz bate-ko goiz otza".

ZERTZEAN



ALVARO RABELLI

Blas de Oterori

Hemen nago, euri langarraren azpian ur nabarrei begira. Hemen nago, baina ez nozu ikusten, dei egiten deutsut, baina ez deustazu erantzuten, gaur be ez deustazu erantzuten. Itsasbeherako lupetzak hil egin dauz ur zikin honeetako atzen arrainak. Hortxe dautsaz, gabarren krosko ustelen artean, zilarrezko lepoa agerian itxita. Hurrean, biziaren atzen dirdira. Ur honeek gorrotatuko neukez, lehenago galiziar eta gaztelauen etxola txiroetatik pasako ez balira, ur honeek gorrotatuko neukez, zuek, *mademoiselle* Isabel, Montse eta Sabina maiteak, ur honeen zurdetan igarriko ez bazinduztet. Kaioek egiten dabe hegan nire gainetik, eurak behintzat libre egin zenduazan, kaian trapuzko baloi antzeko bategaz futbolean egiten diharduen ume deslaidak bezain libre. Hankak odoletan eta zikin daukiez, euren jertseak lez, oinak bustita daukiez, euren arima lez, eta begietan coke ikatzaren errautsen printzak. Nire gaztaroko zezen plazetako bigantxak gogorazotzen deuste, suhar eta ikaragarri heriotzaren aurrean. As-kotan kaioak eta portuko garabiak lakoa izan gura izan dot, garabia gizakiaren aldeko justizia altxateko eta kaioa zugandik hurrago hegan egiteko. Baina ez, gure hegala kateez bete zenduazan, urratsa laburregia dogu. Kaioak lehenengo ikusle, lehenengo zale egin zenduazan Uribitarte, Olabeaga eta Zorrotzako kai zaharretan, non burdin meazko zelai zehaztugabeetan ingeles marinelek gure Neguriko *sportmenei* eta portuko langileei futbolean jokatzeko irakatsi eutseen. Kaioak, eta ez ni, izan ziran garabien gainetik borroka honeen lehenengo ikusle eta zaleak, isil-isilik, beti Bilboko euri eta berun koloreko zerupean. Horregaitik kaioek ez dabe San Mames gainetik hegan egiten, ur bazterrean zain gelditzen dira garabietara igota ingeles marinel horreek noz etorriko, ni orain zure zain nagoan moduan. Hemen nago, borrokan, buruz buru, heriotzaren aurka amildegiaren ertzean, erreka arrainak lez. Zuri erreguka nago, isiltasuna, neure ahotsaren oihartzuna baino ez dot nire barnean aditzen. Ahotsa altxau gura neuke, berbea eta pakea eskatu, hain flakoa dogun gizakiagazko justiziaren alde. Isiltasuna, hutsa eta gerizpeak baino ez dagoz nire inguruan. Ene jainkoa! Egin nauzu kaio, garabietatik kaiko ume deslaidak eta zikinak futbolean ikusi ahal izateko.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heldzean diran mo-duan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduari ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Anartz Gumuzio igorreztarra Karibe aldera joan da aurtengo garagarrian, Dominikar Errepublika irlako hondartzetan sano lasai botata egotera. Cabeza de Toro hondartzatik bialdu deusku BEGITUren Oporretako Argazki Lehiaketara heldu dan lehe-nengo erretratua. Puerto Rico eta Dominikar Errepublikaren bitar-teko itsasarte, Karibea eta Atlantikoa batzean diran lekuan, garai batean pirata eta korsarioen pasaleku zan. Gaur baina, turisten pa-sealekua da hondartzea eta aingurea botata daukienak, *hotel-resort-spa* eraikin erraldoiak dira. Ez ete da ba Anartz hango pirata bakar-ra izango eta argazkia bere altxorra topetako mapea? Arratziar, ubidez-tar eta zeberioztarrok, bertatik bazabizie badaukazue zer egin, barruan Urrezko Begitu-lagun txartela dago-ta!

Ez ahaztu zure oporretako argazkiak begitu@begitu.eus-era bialdu-teaz. Astegioen pasa bat dago jokoa.





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa

LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com



BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17	Arkaitz 677 46 40 91
Eduardo 647 72 96 24	Goldor 666 58 20 06

Pozueta poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com



Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bidakia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zentrua: 900
R.P.S. 31/06

ZEANURI

Lau egunez ospatuko dabez andramariak Zeanur

Hilaren 14an Zeanuriko Udaleko langileek, oingoek zein behargin ohiek, jaiei hasikerea emoteko txupinazoa botateagaz batera hasiko da lau eguneko festa.



Erredakzinoa

Zeanuriko Andra Mari jaia abuztuaren 14tik 17ra ospatuko dira aurten, eguenetik domekara. Urtero legez, herriko txistularien esku egongo da jaia zabaldu zein zarratutea eta egunero, 11:00etan urtengo dira Hiru Zubiak egitera, zeanuriztarrak itxartu eta jaietaz gozatzeko bajatutera animetan. Beste urteroko zitak be ez dira faltauko: Gorbeia igokerea, pelotea eta frontenisa, ardi-txakur txapelketea, playback-ak, Sukaldarien Eguna eta abar.

Musikea be protagonista izango da andramarietan eta egunero egongo da honen inguruan jantzan egin eta abestuteko aukerea, herriko kaleetatik zein oholtzan. Eguenean Ezpalak rock taldea, Nonbait erromeria eta DJ Gose ta Sue igoko dira taula gainera. Barikuan barriz, eguerdian Kittu taldea ibiliko da herritik eta gauez, Playback Txapelketeagaz eta Gaitegun erromeriagaz ipiniko da jentea jantzan. Zapatuan ostera, Heitxik genero desbardinak musika elektronikoagaz buztartuko dauz eta gero, Gora Herriak gidatuko dau erromeria. Atzen egunean be, domekan, erromeria egingo dau Eingok.

Abuztuak 14, eguena

08:00etan, Gorbeia igokerea. 11:00etan, Frontenis Txapelketako finalak. 15:00etan, herri bazkaria. 18:00etan, kuadrillen arteko jokoak. 19:00etan, Salbea Andra Marin. 20:00etan, txupinazoa Udaleko langileen eskutik.

Gero, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 22:00etan, Ezpalak taldearen kontzertua eta erromeria Nonbait taldeagaz. Gero, DJ Gose ta Sue.

Abuztuak 15, barikua

11:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 11:00etan, Txinbera Lehiaketea haur eta gazteentzako. 11:30ean, meza nagusia Andra Marin. 12:30ean, musikea kalean Kittu taldeagaz. 19:00etan, Zeanuriko Pelota Txapelketako finalak. 22:00etan, Jaietako Kartel Lehiaketako sari banaketea. 22:15ean, Playback Txapelketea. Gero, erromeria Gaitegun taldeagaz.

Abuztuak 16, zapatua

11:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 11:00etan, Sukaldarien Egunerako izen-emoteak.



11:30ean, arimen mezea Andra Marin. 13:00etan, tortillen aurkezpena. 14:00etan, paella eta postreen aurkezpena. 14:30ean, sari banaketea eta herri bazkaria plazan. 17:00etan, umeentzako ur jolasak. 21:30ean, Heitxiren kontzertua. 22:30ean, erromeria Gora Herria taldeagaz.

Abuztuak 17, domeka

11:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz. 11:00etan, umeentzako jolasak Panpotx alkartearen eskutik. 13:00etan, jubiladuen barauskarrria plazan. 17:30ean, Zeanuriko VI. Arraza Libreko Ardi-Txakur Txapelketea Torreko soloan. 19:30ean, Ni-Mu konpainiaren antzerki zirkua. 20:30ean, txokolata eta txurroak. 22:00etan, erromeria Eingo taldeagaz. 00:00etan, Hiru Zubiak herriko txistulariakaz.

ARTEA

Eguneroko mediku artatzea eta itxarote-zerrendea murriztutea exijidu dabe Artean

"Gure komunitatearen bizimoduak erdigunean ipinten doguzalako ez dogu osasungintzan murrizketarik onartuko, batuta eta antolatuta jarraituko dogu".

Erredakzinoa

Bagiletik, Artea eta Areatzan mediku zerbitzua txandakatua da eta oin guztira zerbitzu ordu gehiago emoten badira be, herritarrak herri herri ibiltera behartuta ikusi dira. Holan, garagarilaren 3an protestea egin eben 70 bat lagunek Arteako osasun-zentroaren atean, "Osasungintzan murrizketarik ez!" lelopean. Osakidetzaren neurri hau "zerbitzuen prekarizazioaren ondorio" dala salatu eben irakurritako komunikauan: "Herriarrok lehen mailako arreta zerbitzua eskatuten dogu, zer gitxiago!".

Egoereari bueltea emoteko, exigentzia bi mahaigaineratu ebezan. Batetik, Artean egunero mediku eta erizain zerbitzua egotea, "gitxienez oin arteko ordutegia mantenduta" eta bestetik, mediku artatzerako itxarote-zerrendea murriztutea. Honetarako, neurri biren proposamena egin zan. Lehenengo, gomendatuten diran paziente-mediku ratioak erresetetea eta beraz, Artearako medikuen kontratazioa handitutea. Bigarrenik, "lehen mailako arreta zerbitzuetako lantaldea behar dan moduan osotutea, horretarako ad-ministrariak kontratauta".



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Javi Morato eta Xabier Artetxe dira Begitu-lagun kanpainako saridunak

Erredakzinoa

Eneko Atxaren ENEKO jatetxeko persona birentzako Sutan menua Areatzako Javi Moratok irabazi dau eta Orduña Plaza Bainuetxean lagun birentzako astegoen pasa Xabier Artetxe igorreztarrak. Begitu-lagun barriak egiteko kanpaina martxan euki dau BEGITUk, hori dala-ta garagarilaren 28ra arte Begitu-lagun egin diranen edo Begitu-lagun izan eta lagun bat ekarri dabenen artean goian aitaturako sari potolo biak zozketatu ditu.

BEGITUREN asmoa eten barik hobetzea da eta bere baliabide ekonomikoak indartuteko, proiektua diruz lagunduko daben lagunak behar ditu, BEGITU bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eusteko. Proiektua aurrera eroan ahal izateko diru sarrerak handitu behar ditu Arratia, Ubide eta Zeberio aldirak. Hiru baino ez dira izan zozketan sartu diranak eta kanpaineak ez dau arrakasta handirik izan. Halan da be abenduan beste sari potolo bi zozketatuko ditu BEGITUk. Adi hurrengo zenbakiei.

ZEBERIO

Tio Teronen Semeak eta Porrotx eta Marimotots-ek alaituko dabez jaia

Abuztuaren 28an hasi eta urri lehenengoaren 2an amaituko dira aurtengo Zeberioko Sandoni jaia eta Udalak BEGITU azaldu deusanez, abuztuan egingo da publiko egitarau osoa; hau herritarren artean banatuko da.

Erredakzioa

Halanda be, Zeberioko Udalak aurreratu dau domekan, hilak 31, Tio Teronen Semeak musikari, jantzari eta umoregile taldeak eskainiko daua zuzeneko emonaldia. Martitzenean barriz, jaietako atzen egunean, Porrotx eta Marimotots pailazoak egongo dira.

Tio Teronen Semeak taldea euren hirugarren ikuskizuna, *Haurreskolari*, jente-aurrean aurkeztuteko biran dabil bete-betean. Mutil jantzari talde hau egun bakarrean egiteko emonaldi baterako batu zan 2015eko Donostiako Olatu Talka jaialdian eta atzenean, hamargarren urteurrena beteten dabiz euskal jantzak, musikea eta umorea plazarik plaza buztartuten.

Haurreskolari "kuadrilla xelebrea" ikastolara bueltauko da eta bertan bizitako momentu ahaztuezinak gogoratzu, baina ikasitakoa desikastera. Izena 'haur', 'aurreskolari' eta 'eskola' berbak batuta sortu dabe.

Porrotx eta Marimotots barriz, Pupu eta Loregaz egongo dira Zeberion, *Ostirala iritsi da!* antzezlanagaz txiker zein nagusiak barrez ipinteko. "Gaur egun berezia da eskolan. Porrotx, Marimotots, Pupu, Lore eta bertaratutako lagunek, Txapas irakasleagaz batera, euren atzen laneguna igaroko dabe, alkarregaz ikasitakoa ospatuz. Basoa, jolasak, eskulanak, kantuak, irriak eta bihurrikeriak ez dira faltauko. Txapasegaz beti da barikua! Jantzi sudur gorria eta zatoz geugaz Txapasen kaxa magikoek gordetan dabezan sekretuak ezetutera!", dino sinopsiak.



LEMOA

Greban dagoz Aldetuko langileak



Erredakzioa

Lemoako Bolunburu industrialdeko Aldetu S.A. enpresako 49 langileak greba mugagabeen dagoz garagarilaren 8tik. Ogasunagaz zein hornitzaileak zorrak pilatu ostean 2024ko zezeiletik hartzaileen konkursoan egon da enpresea eta administratzaile batek hartu eban kudeaketea. Aurtengo martian barriz, Aldi Baterako Erregulazino Espediente (ERTE) zabaldu zan, murrizketak tarteko. Bagilearen 30ean amaitu zan espedientearen epea eta hortik aurrera, likidazino egoeran

dago enpresea. Egoera honetan, lan-baldintzak txarrago egiteagaz batera, langileen kaleratze orokorra proposatu dau zuzendaritzek, 49 langiletik 20 baino ez ixteko. Holan, ELA eta LAB sindikatuen eskutik, langileak mugabako greban dagoz, ezarri gura diran baldintzei eta kaleratzei planto egiteko. Kaleratze kolektiboa "traumatikoa izan ez daiten", Jose Antonio Etxebarri LABeko ordezkari sindikalak proposamen batzuk mahaigaineratu dauz. Berbarako, baja boluntarioak onartzea eta 60 urtetik gorako beharginei urtenbide "duin" bat emotea: "Zabalik dago horretaz berba egiteko aukerea".

Langileek Aldeturen administratzaileak egindako atzen batzarraren, garagarilaren 28an, ez eben akordiorik lortu. Etxebarriak kontau dauanez, administrariak "ez dagoz ezer eskaintzeko prest". Holan, garagarila amaitu orduko akordiorik egon ez danez, oin prozesu judizialean sartu da gatazkea, Lan Erregulazino Espediente (ERE) zuzena sartzeako aukereagaz.

Cikautxo kooperatibearen eskaintzea

Mondragon korporazioaren parte dan Cikautxo S. Coop.-ek Aldetu erosteko eskaintzea egin dau. Baina Etxebarriaren arabera, "baldintzak oso maltzurak dira, esplotatzaileak" eta plantilla erdia baino gehiago botatea suposatuten dau eskaintzeak. Horrezaz gainera, metalaren hitzarmena atzean itxi eta hitzarmen berezi bat egin gura dabe, baldintza txarragoetan. "Cikautxoren aldetik beste proposamenik balego, beste baldintza batzuk eta kaleratze traumatikorik ez, posiblea da negoziatzea", argitu dau LABeko ordezkariak.

ARRATIA

Enpresa eta negozio barriak hasteko laguntzea emongo dau Errotak

Erredakzioa

Errota Fundazioak garapen sozioekonomikoa eta alkarlan publiko-pribadua buztartuten dauz Arratian eta oin, ekintzaileen-tzako zerbitzua ipini dau martxan. Aholkularitza lanak egingo ditu Errotak, negozio edo enpresa bat martxan ipinteko lehen pausuetan, "proiektua abian ipinteko bidea erraztuteko". Ekintzaileen-tzako aholkularitza lana planifikazino eta kudeaketearen arlokoa izango da batik bat, negoziarako ideak be emon ahal dabezan arren. Errotako teknikariakaz kontaktuan ipinteko alarrea@erota.eus edo kaurrekoetxea@erota.eus helbide elektronikoetara idatzi edo 688 766 427 (Argiñe)

zein 688 854 543 (Kizkitza) telefonoetara deitu daiteke.

Negozioa martxan zelan ipini ebazteko, Negozio Plana eta Bideragarritasun Azterketea lantzeko laguntzea emongo dau Errotak. Bestetik, bakoxtaren beharretara egokitutako formakuntza praktikoak jasoteko aukerea izango dabe ekintzaileek. Amaituteko, instituzino desbardinek negozioak martxan ipinteko eskaintzen dabezan dirulaguntzak eskatu eta kudeatzeko laguntzea emongo dau Errotak. Horrezaz gainera, Errotak inguruko enpresa eta negozioakaz alkarlana be bultzatuten dau ekimen eta jardunaldi bereziakaz, berbarako, enpresa foroak eta *coworking* espazioak zabaldua.



LEMOA

Bigarrenenez jantzi dau Bizkaiko artzai txakurren txapela Mikel Pagazaurtunduak

Erredakzioa

Garagarilaren 12an Lemoak hartu eban Bizkaiko Artzai Txakurren Txapelketearen hirugarren edizino eta etxean geratu zan txapela, Mikel Pagazaurtunduak irabazi eban-ta. Pasau dan urtean irabazitako txapela denfendidutea tokau jakon eta sano ondo egin eban ardiak mobidu eta batzeako lana. Holan, Lay border colliégaz batera, bigarren

txapela lortu eban Lemoakoak. Irabazi bakarrik ez, Pagazaurtunduak eta Layk bigarren sailkatua puntutan bikoiztu eben. Atzenean, holan geratu ziran bakoxtaren puntuazinoak: Mikel Pagazaurtundua eta Lay (264 p.), J.R. Askargorta eta Bat (132 p.), Bittor Bengoetxea eta Pupi (124 p.), Juanjo Garate eta Tina (114 p.), Igor Elordi eta Tobi (97 p.) eta Inaxio Irakulis eta Beltz (82 p.).



ZEBERIO

Aholkularitza
 energetikorako zerbitzu
 barria izango dabe Zeberion

Nerbioi-Ibaizabal Mankomunitateak energia kontuetarako aholkularitza zerbitzu barria ipini dau martxan eta Zeberioko Udala honen parte izanda, zeberioztarrek hau erabilteko eskubidea izango dabe oindik aurrera.

Erredakzinoa

Holan, besteak beste, faktura energetikoa hobeto ulertuteko laguntzea, konsumoa murriztu eta tarifik optimizetako aholkuak eta Argindarraren Bonu Soziala zein bestelako dirulaguntzen gaineko informazioa jaso ahal izango dabe holan gura izan ezkero.
 Zerbitzu hau herritarrek zein sektore pribaduko enpresa txikiek erabili ahal izango dabe. Gainera, jentegaz zein enpresa txikiakaz lan egin bitartean, aholkularitzako teknikariek Nerbioi-Ibaizabal eskualdean interes berezia daukien eta energiagaz loturea daukien alderdiak identifiketan joango dira. Geroago, aholkularitzea gai horreetara be luzatuteko: energia barritzagarriak, energia-komunitadeak, transizino energetikoa...
 Aholkularitza zerbitzuagaz kontaktuan ipinteko aukera desbardinak dagoz. Batetik, herritarrek energia@nerbioi-ibaizabal.eus

helbidera idatzi edo 94 671 26 99 telefonora deitu leikie. Bestetik, aurrez aurreko zerbitzua emongo da. Zeberion bulegorik egongo ez bada be, besteak beste, Ugaon egongo da honetarako aukerea. Ugaoko aurrez aurreko zerbitzua, abuztu eta jai egunetan izan ezik, hileko bigarren eta laugarren martitzenetan emongo da, 11:00etatik 13:00etara.
Bonu Soziala
 Bulego barri honek eskaintzen dituan zerbitzuen artean, Argindarraren Bonu Soziala izeneko dirulaguntzearen gainean informetea dago. Bonu Soziala argindar fakturarei ezarten jakon konsumitzaile zaurgarrientzako beherapen bat da, energia konsumoak eragindako gastuei aurre egiten lagunduteko. Gaur egun, egoera zaurgarrian dagozan konsumitzaileek % 35eko deskontua izan ahal dabe eta egoera zaurgarri larrian dagozanek, % 50ekoa.



Zeberio udala izakeraz

Zeberioko Udalak eta jai batzordeak jai zoriontsuak opa deutsuez!

Ondo pasau sandonietan

AREATZA

Kanpol.Art eskulan taldeak botako dau Areatzako jaietako txupina

Zortzi egunez murgilduko dira billaroztarrak ohituraz beteriko jaietan; txotxongiloak, erraldoiak, buruhandiak, Areatzako Banda, suak eta zelan ez, Danborradaren kalejirak.

Erredakzinoa

Abuztuaren 23an, zapatua, botako da Areatzako txupinazoa eta herrian jai giroa izango da nagusi, deskantsurako tarte barik, hurrengo zapatura arte. Festak lehertu orduko urtengo dira udaletxetik, urtero lez, txotxongilo, erraldoi eta buruhandiak, Areatzako Txistulariek, Areatzako Bandak eta Bizkaiko Gaiteroek girotuta. Hortik aurrera, adin eta gustu guztietarako jarduera eskaintza zabala antolatu dau Jai Batzordeak.
 Musikea izango da protagonista handienetako bat, Gudarien Plazan zein Laminetxe Gaztetxean kontzertu, erromeria eta DJak egongo dira: Altxa Porru, Chuchin Ibañez y Los Charros, DJ Gose ta Sue, Alarma Morea, Arene 6, DJ Feli eta Mugi Panderoa. Horrezaz gainera, bestelango ekintzak girotuten be egongo dira Elektrokela eta Sakatu elektrotxarangak, Areatzako Banda, Kilometrokantu eta Kittu. Beste alde batetik, lehiaketa gastronomikoak, playback-ak, kirol erakustaldiak, karta-jokoak eta adinekoentzako zein txikerrenentzako ekintzak antolatu dira, besteak beste.

Abuztuak 23, zapatua

14:00etan, txupinazoa Kanpol. Art-en eskutik. Jarraian, txotxongilo, erraldoi eta buruhandiak, Areatzako Txistulariak, Areatzako Banda eta Bizkaiko Gaiteroak. 18:00etan, Elektrokela elektrotxarangea. 20:00etan, Salbe herrikoia: Hilarion Eslavaren *Salve Regina* eleizan. 22:30etan, XXX. Playback Lehiaketea. 00:00etan, erromeria Altxa Porru taldeagaz.

Abuztuak 24, domekea

06:00etan, mortero jaurtiketea. 11:30etan, txistularien kalejirea. 12:00etan, meza nagusia. 12:30etan, herri kirolak. 13:30etan, Tabernen Arteko Pintxo Lehiaketea (txartelak 16:00etan batuko dira). 14:00etan, kalejirea Kilometrokantu taldeagaz. 18:00etan, eskupelota partiduak. 21:30etan, *Ameriketatik Euskal Herrira* kontzertua Areatzako Banda eta Ainara Ortegagaz. 23:30etan, presoen eskubideen al-



deko txosneak antolatuta txokolatea.

Abuztuak 25, astelehena

12:30ean, arimen aldeko mezea. 13:30ean, belaunaldiarteko agurra. 14:00etan, hirugarren adinekoentzako kopaua eta musikea. 16:00etan, Briska Txapelketea. 16:30ean, pala partiduak. 19:00etan, belaunaldiarteko jantza saioa (jauziak). Erronka herrikoia. Kittu taldea. 21:00etan, Chuchin Ibañez y Los Charros mariatxi taldea.

Abuztuak 26, martitzena

11:30ean, puzgarriak. 13:00etan, bits jaia. 18:00etan, umeen playback-a. 20:00etan, Xaibor.

Abuztuak 27, eguaztena

14:30ean, Makailao Txapelketako aurkezpena. 16:30ean, Tute Txapelketea. 18:30ean, Rally Umoristikoa. 22:00etan, kontzertuak Laminetxe Gaztetxean.

Abuztuak 28, eguena

13:00etan, Igel Txapelketea.



16:00etan, Mus Txapelketea. 20:00etan, Tortilla Txapelketako aurkezpena. 21:00etan, afari herrikoia. 22:00etan, bingoa eta karaokea. Gero, DJ Gose ta Sue.

Abuztuak 29, barikua

14:30ean, Paella Lehiaketako aurkezpena. 18:00etan, Olinpiadak. 20:00etan, Sakatu elektrotxarangea. 22:30ean, Alarma Morea eta Arene 6 taldeen kontzertuak. Gero, DJ Feli.

Abuztuak 30, zapatua

12:00etan, Xake Txapelketea. 18:00etan, Danborrada Txikiren kalejirea. 22:30ean, Areatzako Bandaren, Danborradaren eta kuadrillen kalejirea eta su artifizialak. 00:00etan, erromeria Mugi Panderoa taldeagaz. 02:00etan, Areatzako Danborradaren bigarren bueltea. Jarraian, erromeria Mugi Panderoa taldeagaz. Gero, jaien agurra Kanpol.Art-en eskutik.

MUSIKEA

Urtzi Amuriza: "Publikoa mobiduten ikusten dozunean... Horrek erakusten dau egindako lana ondo eginda dagoala"

Bateria billaroztarra Bizkaiko talentu musikal gazteak batu dituan Señeak Rock Kanpusean egon zan aprilean eta aurretik, Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestran izandakoa da. Esperientzia honeetaz eta bere ibilbideaz berba egiteko tartea izan dogu BEGITUN.

Erredakzioa

Urtzi Amuriza Goikoetxeak hamazortzi urte ditu eta Areatzan bizi da. Arratiako Musika Eskolan hezia, perkusinoan trebatu da eta batez be, bateria eta txalapartan. Gaztea izanda be, esperientzia hartzean dabil parte hartu dauan proiektu bakotxagaz. Areatzako Bandagaz eta Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestreagaz emon ebazan lehen pausuak oholztetan eta aurtengo Aste Santuan, Señeak Bizkaia Rock Kanpusean egon da beste talentu gazte bizkaitar batzuekaz batera, Zornotzako Lauaxeta Ikastolan.

Enaitz Gorospe dimoztarrak eta Maixa Perez igozretarrak be hartu eben parte Señeak-en eta bertan, egindako harremanez gainera, musikalki hazteko aukerea izan eben. Esperientzia honeetaz eta norberaz berba egiteko, Areatzako Bandaren entsegu gelan egon gara Amurizagaz. Bateria-joleak txikitatik izan dau musikea egiteko grina baina ez dauka profesionala izateko asmorik; erromeria talde bat osotu gura dau, musikea bere gozamenerako.

Zelangoak izan ziran zure lehenengo pausuak musikan?
Musikea betidanik gustau izan jata eta hamar urte nebazanean aitak solfeora sartzeako esan eustan eta instrumentua aukeratutakoan, bateria jo gura nebala esan neban. Bateria klaseetan sartuta lau urte inguru egin nebazan, gero txalapartea be jotera pasau nintzan, beste urte biz, eta perkusinoa egiten amaitu dot.

Musikea betidanik gustau jatzu, badago bidean inpiraurau zaituan nonor?
Bai, nire aitak tronboia jo izan dau eta Areatzako Bandan ibili da gatzetatik.

Arratiako Musika Eskolan sartzeraz animau zintuen, zelangoa izan da esperientzia eskolan?
Ni hamar urteagaz sartu nintzan, zortzi urte daroadaz hemen. Hasieran gatxa izan zan, solfeoa eta... Gauza barria zalako baina gero bateria praktiketan hasi nintzanean gehiago gustetan hasi jatan, atzenean perkusinoa da

gustukoen daukadan arloa.

Ze momentutan esan zenuan, nik hau egin gura dot?
Oin dala hiru-lau urte Areatzako Bandan sartu nintzanean ikusi neban zer dan kontzertuak eta holangoak egitea. Entseguak eta entseguak egitea ondo dago baina kontzertu bat egitea beste gauza bat da, onena. Bandan hasi nintzanean esan neban, "hau asko gustetan jata". Solfeoa ez jatan ezebe gustetan baina perkusinoa jotzen hasi eta gero kontzertuak zer ziran ikustean asko gustau jatan.

Zergaitik aukeratu zenuan perkusinoa?
Txikitan tanbor txikitxo bat erosi eustien eta beti ibiltzen nintzan kaletik jotzen eta horregaz jarraitu neban... Danborradan ibiltzen nintzan txikitan baina ni bakarrik be, barbarako, zapatu goizean urtetan nintzan tanborragaz kaletik jotzen, apur bat frikia be bazan hori (barreak). Eskolan aukeratutakoan, pianoa edo betiko beste instrumentuak ez aukeratutearren, zeozer diferentea gura neban.

Sortu jatzu beste instrumentu batenganako kuriosidaderik?
Ezetz esango neuke, perkusinoak instrumentu asko hartzean dauz eta dana ondo ikastea oso gatxa da. Barbarako ibili naz oin silofonoagaz, laminak eta guzti hori... Mundu barri bat da.

Zeintzuk dira musikeaganako zure asmoak etorkizunera begira?
Ointxe bertan hamazortzi urte daukadaz, unibersidadera sartuko naz eta ez dakit zein unibersidadera joango nazen be ez eta unibersidadearen arabera ahal izango dot perkusinoa jotzen eta ikasten segidu. Nire asmoa, ikasketek ixten badeustie, erromeria talde bat edo antzekoa osotutea da. Kontzertuak jotea gustetan jata eta Señeak Rock Kanpusean ikusi neban beste gazte batzuekaz jotea zer zan, asko gustau jatan. Bandeagaz egindako kontzertuetatik be esperientzia badaukat eta pentsau neban polita izango zala abesti ezagunak eta abar jotea.

Zer sentiduten dozu kontzertu bat eskaintzerakoan?



Atzenean kontzertu batean joteko egin behar dana asko praktikea da. Entseguetara joan, etxean partiturak ikusi eta praktikau... Lan asko dauka atzetik. Gero, kontzertu batera zoazenean, instrumentu aurrean jesarten zarenean, jotzen dozuna ondo urtetan danean eta jenteak txalo egiten dauanean... Emozinoa urtetan da. Motibazio baten modukoa sentiduten dozu eta dinozu, "joe, zeozertarako baliotxo izan dau lanak!".

Kontzertuetan entzuleei adi egotekoa zara edo zurean sartuta?
Bandak adibidez errepertorio asko dauka eta barbarako, klasikoak gatzagoak diranez zuzendariari adi zagoz ia dana ondo doan, edo partitureari begira. Baina abesti ezagunak diranean, erromeria antzekoak, blues-a, jazz-a eta antzekoak gehiago biziten dozu musikea barrutik. Gehiago disfutetan da eta gainera publikoa mobiduten ikusten dozu. Horrek erakusten dau egindako lana ondo eginda dagoala.

Talde bategaz jotea aukeratu ahal izango bazenu, zein aukeratuko zeunke?
Nik esango neuke Ken Zazpi aukeratuko nebala. Txikitatik entzun dot Ken Zazpi eta asko gustetan jata. Ez deusat Jon Freskori bere lekua kendu gura (barreak) baina gustauko jatan beragaz kontzertu bat jotea.

Areatzako Bandak kontzertu formatu ugari daukaz, zer da gehien disfrutetan dozuna?
Nik leku zarratuetako kontzertuak aukeratuten dodaz, plazetan eta kalean ez dago soinu ona eta leku zarratuetan soinu hobea da, argiak dagoz... Kalejirak eta alaiak dira, kaletik jotzen zoaz eta danak barreak baina nik gurago dot leku zarratu baten kontzertu on bat egitea.

Urte hasikeran Señeak Rock Kanpusera apuntetea ebatzi zenuan, zeren esperoan?
Notizia nire gurasoek emon eustien eta musikako irakasleek be abisau eustien baina nik momentuan ez neutsien kasu han-

dirik egin. Ez neban uste hartuko eustienik, "jente gazteagoa edo hobeagoa hartuko dabe" pentsetan neban. Ikasketakaz eta selektibidadeagaz, lan gehiegi izango zala uste neban eta azterketetarako ikasteko aste bat galtzean neban. Baina atzenean pentsau neban ez nebala ezebe galtzean eta aurkezpen bideoa bialdu neban, eta hartu egin eustien. Aurkezpenean ni aurkeztu eta kanpusera zergaitik joan gura neban esan behar neban. Esperientzia barriak gura nebazala esan neban, atzenean ni Euskadiko Ikasleen Jazz Orkestran (EJO) be egon nintzan, han hasi nintzan txalaparteagaz. EJOgaz eukin nebazan moduan, esperientzia barriak gura dodazala esan neban bideoan. Musika munduan dabilen jentea ezetu eta tratua euki gura nebala be esan neban.

Bateria jotzen be bialdu behar zenuan bideoa, ze abesti aukeratu zenuan?
Txarango taldearen *Músic del carrer* abestia. Musika eskoleagaz praktiketan ibili ginan eta nik bateriagaz jotzen ez baneban be, ondo joko nebala pentsau neban eta hori bialdu neban. Kanpusean bateriak, pianoak, abeslariak, gitarra eta bajistak bakarrik egon ginan eta lau bateria-jole hartu ebezan, gero badakit itxarrote-zerrendea egon zala baina zenbatek emon eben izena ez.

Kanpusera ailegauta, zer topau zenuan?
Kanpusaren helburua izan zan leku bat sortutea, non musikea ikasiko dan eta gure arteko harremanak sortuko diran. Denpora gitxian zeozer dinamikoa sortu behar zan. Nire irakaslea Jon Fresko izan zan, Ken Zazpikoa (barreak). Oso majoa izan zan eta bere klaseak oso onak. Sano ondo pasau neban bera hurbila zalako. Klaseak oso dinamikoak ziran eta arin pasau jatazan, metodo desbardinak praktikau genduzan beragaz, erritmoakaz eta.

Zelangoak ziran egunak kanpusean?
08:00retan itxartuten ginan eta armozau ostein, 09:00etan hasten ziran klaseak. Lehenengo egunetan goizean instrumentu klaseak eta arrastian konboak

egiten genduzan, hau da, taldeak. Goizetan bateria guztiak batera egoten ginan Jon Freskogaz eta han ariketak egiten genduzan. Gero helburu nagusia talde bako-txak zapaturako abesti bi jo ahal izatea zan. Horretara bideratuta egoan eta bateria gehiago pres-tatu behar bazan, klase gehiago egiten ziran. Dinamikoa zan, tal-deak funtzionetako. Begirale bi be euki genduzan, oso majoak, jolasak eta be egiteko.

Eta irakasleak?

Alex Sardui (Gatibu) abeslarien irakaslea izan zan, Onintze (Sei-ren, Galder Izagirre) be abesla-rien eta gitarren irakaslea. ETS-ko Aitor Lacalle gitarreagaz eta Gari (pianoagaz) egon ziran eta azke-na Gatibuko baju-jole barria dan Ekain Alzola.

Zelan pasau zenduan?

Lehenengo egunetan pentsetan nebana zan selektibidadea hur-bil egoala eta ikasi egin behar nebala. Liburuak eta dana eroan nebazan baina ez neban ezebe ikasi. Nik pentsau neban danak hamabi edo hamairu urteko umeak izango zirala eta gauetan ikasi ahal izango nebala baina ez, nire adineko nahiko egon gi-nan eta lagun piloa egin neban. Errealidade alternatibo baten mo-dukoa zan, musikearen inguruan. Lagun barriak egin nebazan, pilo bat ikasi neban eta denporea oso arin pasetan zan, esperientzia ikaragarria.

Aprobetxau zenduan errome-riaren proiektua mahaigai-nean ipinteko?

Bai baina... urtetan da baina ez (barreak). Nire klaseko bategaz joan nintzan eta gure artean euki genduan taldea egiteko idea, be-rak gitarrea joten dau. Han ume batzuk egoazan, oso ondo joten ebenak, baina gure edadekoei esan geuntsan erromeria bat egitea pentsau genduala. Baietz esan euskuen baina momentuz ez da aurrera urten. Badaukagu denporea baina oin ikasketakaz bata Donostiara, bestea Gastei-zera eta bestea Iruñeara eta igual ezin izango dogu ezer egin.

Harreman barriez aparte, mu-sikalki be ikasiko zenduan zeozer ezta?

Bai, uste dot dinamikoa izaten ikasi dodala; momentuan ezetu dozun jenteagaz, jente barriagaz, segiduan zeozer joten ikastea. Jentea ezetuten dozu eta segi-duan alkar ulertutea, ezetu ez arren badakizu zelan jo.

Kanpusean ikasitakoak egin dau zuk musikan eta etorki-zunean gehiago pentsetea?

Bai baina ez. Niri musikea gus-te-tan jata baina profesionala izatea ez jatan ezebe gustauko. Haste-ko solfeo gehiago ikasi behar da (barreak). Goi mailako ikasketak eta abar egin behar dira eta hori

gauza asko da, gurago dot eri-zaintza egitea, gehiago gustetan jata. Badaukadaz ikasketak bi-deratuta eta musikan holan sar-tzea... Sartu ahal naz erromeria baten eta oindik aurrera jo baina gurago dot disfrutetako izatea.

Ze momentu geratu jatzu go-goan, kanpusean bizitakoen artean?

Atzenengo kontzertua. Kontzer-tua Zornotzako areto batean jo genduan eta nik pentsetan neban zeozer inprobisauagoa izango zala, ez oso profesionala. Bai-na hara heldu ginanean, soinu probak egiteko, argiak montautu eukiezan, kea, Gatiburen tek-nikoa... Tekniko-lan apur bat be ikasi genduan beragaz, kasetxo bat, aurreko egunean. Kontzertu espontaneo bat espero neban eta ez, kriston saltsea. Oso ondo montautu eta koordinautu, harri-garria izan zan. Lehenengo aldia zan niretzako holango prestake-teagaz kontzertua egiten.

Grabazino eguna be izan zen-duen ez?

Bai baina inprobisauagoa izan zan. Gatiburen teknikoak mikro-fonoak eta ekipoa ipini euskuzan baina ez zan izan estudio profes-ional batean ez ezer. Apur bat intsonorizautu dagoan bertoko gela batean izan zan, mikroak ipini, abesti bat jotea eta hau grabetea, eta listo. Pasau dan urtean disko bat grabau genduan EIJOgaz eta estudio on baten izan zan. Asko kantsetan dau, hiru egun egon ginan grabetan goizeko 08:00retatik gaueko 22:00etara eta hori teknikoa joan behar zalako, bestela... Amaitu arte! Pilo bat ordu dira eta berba-rako, gitarreak akorde bat txarto joten badau dana grabau behar da barriro, oso astuna da. Gurago dot zuzenean jo eta aurrera.

Euskadiko Ikasleen Jazz Or-kestran zelan amaitu zen-duan? Zer egiten da?

Urte batzutan ibili naz. Euskadi mailan egiten dan proiektua da eta helburua talde bat, *big band* esaten dana, osotutea da. Gazte asko batuten da eta maila oso handia dago, kontzertu batzuk prestatu eta eskaini egiten dira. Euskadiko Ikasleen Orkestra moduko da baina EIJO-n jazz-a egiten da, oso desbardina. Ha-malau eta hogeit bitarteko jentea egoten da eta proba batzuk egin behar dira sartzeko, hautatuakaz entseguak egiten dira eta gero, astebeteko egonaldia egiten da batera praktiketako, kontzertuak eskaini aurretik. Pasau dan urte-koa EIJOren hamargarren urteu-rrena izan zan eta horregaitik jo genduan Guggenheimen. Aurten ez naz egon baina aurreko hiru edizinoetan bai.

Hor hasi zinan txalaparte-gaz ezta?



Carlos Sagi nire irakaslea etorri jakun eta esan euskun EIJOgaz txalaparteia joteko jentea falta zala, ia jo gura genduan. Baietz esan ne-ban, esperientzia polita izango zala. Txalaparteia jotn jakin barik joan ginan EIJOra, inprobisetan, ia zelan urtengo. Gustau jakun eta Carlose-ri esan geuntsan ondo prestatuko ginala. Urte bi egin genduzan txa-laparta klaseetan, EIJOra-ko presta-tuteko. Ni eta lagun bat ibili ginan eta praktikau ostean probak egin genduzan, ia bakarrak ginan.

Zelan animau zinan hain gaz-te EIJOra?

EIJOra Areatzako Bandara sartu aurretik joan nintzan eta bertan emon nebazan lehenengo kon-tzertuak. Zoramen apur bat izan zan hasteko, hemen eskolako emonaldietan hamar persona-

ren aurrean jotn neban eta urte osoa horrerri dedikautu. Hara hel-du nintzanean lehenengo entse-gua bakarrik egin neban laguna etorri ezin zalako. Carlos irakas-leagaz nengoan eta oso gatz ikusi neban, maila oso handia egoan eta jentea oso pretauta doa, hogeit urtera arteko gazteak doaz hara, Musikenen sartzeko prestatuten diranak. Baina bue-no, gero lagunagaz hasi ginan ondo praktiketan eta partiturak begiratuten eta hobeto ikusi neban. Jarraian Bandan sartzek be lagundu eban partiturak eta hobeto irakurteko.

Eta jente barriagaz joteko es-perientziak harrapau deutsu.

Bai, han jente gehiena nagusia-go zan baina lau inguru egon ginan nire adinekoak eta horree-

kaz alkartu nintzan. Taldea egin genduan eta hurrengo urtean be izena emongo ebela pentsautu animau nintzan, lagunduten dau jente ezaguna egoteak. Hurren-go urtean gure adineko jente gehiago sartu zan, atzenean gu be zaharragoak, eta esan neban, "perfekto". Lagun gipuzkoarrak eta arabarrak egin nebazan eta oso ondo.

Amaituteko, zer esango zeuns-kio musikan hasi gura dan, bai-na nondik hasi ez dakian gazte bateri?

Hastea da. Instrumentu bat gus-tetan bajako praktiketan hastea, bideoak ikusten, instrumentua entzuten... Gero argi dago sol-feora apuntu behar dala, baina jotn hasten zarenean bigarren mailako gauza bat da solfeoa.

Maixa Perez Tejera

Urteak: 16.
 Bizilekua: Igorre.
 Instrumentuak: pianoa eta tekladua.
 Ikasketak: Zornotzako Musika Eskola.
 Proiektuak: Zornotzako Musika Eskolako ikasleek sortutako Waiata taldea eta Señeak Bizkaia Rock Kanpu-sean ezetutako gazteakaz Txernobil metal-rock talde osotu barria.

Enaitz Gorospe Ramos

Urteak: 16.
 Bizilekua: Dima.
 Instrumentuak: bateria.
 Ikasketak: Astrapalea Musika Ikastegian eta autodidakta moduan urte bina, gaur egun klase partikularrak jasoten ditu Oier Cacho (Hollowborn eta Biok) bateria-jolearen eskutik.
 Proiektuak: Talde bila.

FUTBOLA

Futboleko XXXVII. Igorre Saria abuztuaren 23an jokatu da Urbietan

Erredakzinoa

Urbietan zelaia Igorre Sariaren hogeta hamazazpigarren edizioa hartuko dau abuztuaren 23an, zapatua. Aurten, igaz lez, txapelketea egun bakarrean jokatu dan triangelukatua izango da, gizonen Arratia A, Erandio eta Abanto taldeen artean. Lehen partidua 17:00etan izango da eta etxeko taldeak eta Erandio jokatu dabe alkarren kontra, partidua 45 minutukoak izango dira. Bigarrena, 18:00etan



jokatu dana, Erandio jokatu dau Abantoren kontra eta 19:00etako Arratiak eta Abantok jokatu dabe. 20:00etan sari banaketea izango da eta talde irabazleari txapela jantzi eta jokari onenari saria emongo jako.

Andrazkoen Arratia A

Andrazkoen Arratia A taldeak hilaren 13an hasiko dau aurre-denporaldia. Igaz Bigarren RFEF mailara igoteko promozinoa jokatu ostean aurten barriro saiatuko dira mailaz igoten arratiarrak. Seizazpi jokari Arratia taldea itxi dabe, Maddi Ayarza dago euren artean, dimoztarrak futbola itxi dau. Joan dan beste jokari bat Nerea Gallastegi zornotzarra da, sano jokari garrantzitsua, 14 urte heldu zan Arratiara eta 9 denporaldi Arratian egin ostean Eibar B taldean jokatu dau datorren denporaldian. Arratiako zuzendaritzak bost jokari barri fitxetako asmoa agertu dau. Euskal Herriko XV. Kopa jokatu dau Igorreko taldeak abuztuan ligea hasi orduko.

TRONTZEA

Ruth Linaza txapeldunorde Arabako trontza mistoan

Erredakzinoa

Ruth Linaza probalari lemoaztarrak, oin Otxandion bizi dana, Arabako Trontza Misto Txapelketea jokatu eban garagarriaren 6an Kimetz Lapazaranegaz batera. Aurreko edizioan lez, bikoteak bigarren postua eskuratu eban. Metro bat eta bost zentimetroko diametroko enborrari hamabost epai egitea zan probea eta azpitxapeldunek sei minutu eta 22 segundotan amaitu eban lana. Guztira bost bikote hartu eban parte proban eta txapeldunak, au-

rreko urteko titulua defendiduten, Garbiñe Lopez de Uralde eta Ion Lapazaran izan ziran, lau minutu eta 59 segundoko denporeagaz. Bigarren Ruth Linaza eta Kimetz Lapazaran eta honeen atzetik, Sara Jimenez de Aberastui eta Mikel Gonzalez egon ziran, podiuma osotuta. Hurrengo txapelketea abuztuaren 7an jokatu dau Linazak, Garbiñe Lopez de Uraldegaz batera. Gasteizen jokatu da Arabako Andrazkoen Trontza Txapelketea eta aurreko urteko txapeldunak izanda, txapela defendidutea tokauko jakie.



PELOTEA

Plazandreak torneoko azpitxapelduna izan da Aldai, Erasunen kontra 18-9 galduta

Garagarriaren 21ean jokatu ziran Bilboko Esperantza frontoian Plazandreak Txapelketako final biak, lau t'erdikoa eta binakakoa. Kaiolan Amaia Aldai dimoztarra eta Itsaso Erasun zizurkildarra egon ziran eta Erasunek jantzi eban txapela, Aldai baino gehiago izan zan-ta.

Erredakzinoa

Partidua 18-9 amaitu zan, Aldaik BEGITU kontau eban, Erasunek holan "mereziduta". Binakako txapela barriz Aizane Ibarrolak eta Enara Gamindek irabazi eban, Goiuri Zabaleta eta Nora Mendizabalen kontra 22-6 irabazita. Aldai faboritua bazan be, Erasunek hasikeratik dominatu eban kantzea. Aurretik mantentzen zan eta Dimakoa hurreratu zan momentu bakarra 5-6koan izan zan. Aldaik BEGITU onartu eban, Erasunen jokatu moduak "anulau" egin ebal berea: "Bere pelotakadak indar handiagaz joiazanez ezin neban nire aurreko jokoa egin eta berean sartu nintzan; atzelari baten kontra atzeko jokoa dominetea gata izaten da". Holan, nahiz eta Aldai fisikoki ondo egon, ezin izan zan Zizurkilgoaren jokora moldatu: "Nik botaten nebazan apurra txarrera joan ziran, ni baino gehiago izan zan eta mereziduta irabazi eban".

Udako torneo

Garagarri amaieratik urri lehenen-



goaren 22ra arte Udako Master Laboral Kutxa Txapelketea dago jokoan. Aldai Arrate Bergaragaz batera dabil bi talde baten banatutako zortzi bikoteren arteko txapelketan. Lehenengo partiduan, garagarriaren 25ean Gasteizen, 22-15 urte ziran garaile Goiuri Zabaleta eta Naia Bertizen kontra eta hurrengo partidua abuztuaren 8an izango da.

Aldai aurreratu dau, "maila altuena" emoten saiatuko dala. Dimakoa dinoanez, "denporaldi baten ostean apurka-apurka sensazio onak berreskuratzen" dabil eta Udako Torneo bide horretan segiduteko erabiliko dau: "Ia nik eta Arratek txapelketa biribila egin ahal dogun eta finalerako txartela lortzen dogun".

PELOTEA

Aurten be nagusitu jakiez markinarrek zeanuriztarrei

Erredakzinoa

Garagarriaren 5ean amaitu zan Bizkaiko LV. Herriarte Txapelketea, Zeanuri eta Markina-Xemeingo pelotarien arteko finalagaz. Pasau dan urtean moduan, markinarrek eroan ebezan txapelak etxera. Izan be, jokatu hiru partiduetatik hirurak irabazi ebezan, alde zabalagaz gainera.

Holan, markinarrek alkarren segidako laugarren herriarte txapelketea irabazi dabe. Kadeteen mailako finala Gortazar eta Beobide zeanuriztarrek jokatu eban eta 22-4 amaitu zan partidua markinarren alde. Bigarren finalean be, jubenil mailakoan, markinarrek oso gainetik egon ziran eta Ozerinjuregi eta Egiliorrek tantu bakarra egitea

lortu eban, 22-1 amaituta. Maila gorenean be, herriarte txapelketea ebatzita egonda, Markina-Xemein urte ziran garaile Etxeita eta Erkiaga II.aren kontra, 22-12.

2024ko txapelketea

Pasau dan urtean be Zeanuri eta Markina-Xemein artean jokatu zan Bizkaiko herriarte finala eta orduan be, markinarrek izan ziran garaile. Aurtengoan hiru partidua markinarren alde amaitu dira baina aurreko edizioan, bat irabaztea lortu eban Zeanurikoe, nagusia atzena zala-ta, finala ebatzita baegoan be. Etxeita eta Erkiaga II-k 22-18 garaitu ebezan Agirremalloa eta Pujana.



MENDIA

Europako Bertikaleko Txapelketan hirugarrena izan zan Onditz Iturbe

"Indarrez justutxo ailegetan nintzan, beraz buruagaz olgetea toketan zan; ezin itsutu, bestela, amaieran komeriak".

Erredakzioa

Garagarriaren 3tik 5era jokatu zan Italiako Alpeetan Europako Skyrunning Txapelketea eta lehenengo egunean egin zan proba bertikala. Aprica-Corteno eski estazioan 950 metroko desnibel positiboa gainditu behar eben korrikalariak 4,5 kilometroko bidean. Onditz Iturbek, Espainiako Selekzioagaz, hirugarren postua eskuratu eban 44:26ko denporeagaz, brontzezko domina irabazita. Emaizta ona izan arren, Igorrekoari sano gogor egin jakon proba eta "sufriduz" amaitu eban: "Aldapa handiko bertikal potentea izan zan eta eguraldiak ez eban erraz ipi-

ni, bero eta hezetasun handia egoan eta izertza polita neroan". Iturbek begituri egindako adierazpenetan kontau eban, "atzetik aurrera" egin ebala lasterketea. Besteak arin hasi ziran baina berak "burua hotz" mantenidu eban. "Metroak aurrera egin ahala, korrikalariak harrapauaz joan nintzan eta holango batean, top5-agaitik burrukan ikusi nintzan", inoan igorretarrak. Postua defendiduteko ebatzia hartu eban baina aurreko biak gero eta gertuago ikusita, "harrapetan saiatu nintzan eta lortu be bai". Aurretik Benedetta Broggi italiarra (42:00) eta Paola Stamparoni suitzarra (42:58) baino ez jakozan gelditu.



Paola Stamparoni, Benedetta Broggi eta Onditz Iturbe.

SLACKLINE

Hiru lagunak gainditu dabe estadu mailako slackline errekorra Arraban

Erredakzioa

Garagarriaren bigarren astean Gorbeia bidea egin ebenek zein abeltzainek sorpresa handia topau eben Arraban. Landea alderik alde kurutzatuten eban 1.300 metroko kablea egoan euren buru gainean eta kablea zeharkatuten, Oreka Tolosa, Slakherria, Slackline Pays Basque eta Slackline Valenciako kideak. Eronka honegaz, errekor bi hautsi dira, estaduan inoz ipinitako slackline bide luzeena montetea eta gainera, hau kurutzatutea. Hogei bat lagun izan ziran 1.300 metroko kablea kurutzatuten saiatu ziranak baina errekorra hiru personek baino ez eben lor-

tu: Aitor Sorarrain, Jon Montes eta Juan Carlos Domenech. "Ekintza gogoangarri hau garai barri baten sinbolo bihurtuten da altuerako

kirolarentzat, XXI. mendeak badauka bere itua Gorbeian", ospatu eben sare sozialetan errekorra lortu ebenean.



Graduazinoak
Ikusmen terapia
Ikusmen gubitua
Begiko tentsinoak
Lentillen adaptazinoak
Kiroletarako betaurrekoak

Sabinu Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 - olaetxeoptika@hotmail.es

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Bilaka dezga jabetza

- Salmenlan zein alaiturvan
- Lurrak (erakileak, landak, basak...)
- Etebuziak (jauak, baserak, etxak...)
- Gorajak
- Lokal komertzialak
- Pabiloiak...
- Balonazkoak

Bidua dezga proiektu

Iraklin berak erakitzeko
Emateko
Arkitekto-proiektuak

- Barne diseinua
- CEE eta IIE-ak
- Hingintza ahoakularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

Unibertsitate Agintea 25, Sanja - Igortea
94 631 72 57 - 65 64 30 31
94 631 72 57 - 65 64 30 31
94 631 72 57 - 65 64 30 31
94 631 72 57 - 65 64 30 31

Juridikoa - Fiskala - Lanekoa - Kontularitza

Askatasun 28, 1B 48143 Areatza

Tfnoa: 94 673 92 93 Faxa: 94 673 92 82

E-posta: gorbeialde@gorbeialde.com

begitu
eus

- LAN PUBLIKOAK
- UR ETA SANEAMENTU SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK ETA URBANIZAZINOAK

94 631 72 57

ekin@ekinsl.eus

Igorre (Bizkaia)

ARGAZKI LEHIAKETEA

Zahartzaroaren edertasuna Argazki Lehiaketea antolatu dau Uparan alkarteak Areatzan

Erredakzinoa

Uparan jubiladu eta pensinodunen alkarteak adinekoen edertasuna azaleratuteko argazki lehiaketea antolatu dau: *Zahartzaroaren edertasuna*. Edozeinek parte hartu ahal dau lehiaketan eta helburua, zahartzaroak dituan gauza eder horreek ikusi arazotea da. Hilaren 4an amaituten da bakotxak ateratako argazkiak, gehienez bi, Areatzako udaletxean aurkeztuteko epea eta argazki guztiak, ikusgai egongo dira abuztuaren 23tik aurrera, Jubiladuen Txokoan egingo dan erakusketan.

Parte hartu gura izan ezkerro, argazkiak atera eta editau os-

tean, honeek Lemoako Fotoilune dendan doban inprimidu eta Areatzako udaletxean aurkeztu behar dira. Erretratuek 20x30 zentimetroko tamainua izan behar dabe eta sinatu barik aurkeztu behar dira. Horren orde, gutunazal zarratu batean entregau behar dira argazkilaria-riaren izen-abizenak, helbidea eta hartu-emonetarako telefono zenbakia. Behin epea amaituta, Areatzako hiru lagunek osotuko dabe epaimahaia eta honeek, abuztuaren 18an emongo dabez jakitera irabazle biak. Lehenengo saria 150 euroko balioa daukan produktuen otzara bat da eta bigarrena, 100 euroko otzarea.



MEMORIA HISTORIKOA

Aurten ez da auzolandegirik egingo Lemoatxako lubakietan

Erredakzinoa

Eusko Jaurilaritzearen Auzolandegiak programeari esker, atzen udetan hainbat gazte boluntario ibili dira Lemoatxan jazo zan Gerra Zibileko bataila eremua garbitu eta lubakiak musealizetan. Berbarako, zementuagaz betetako sakuak ipinten. Aranzadi Zientza Elkartek kudeatuten dau interes historiko berezidun eremu hau eta Lemoako Udalak BEGITU-ri emondako azalpenen arabera, amaitutzat emon dira atzen urteetako lanak, baina badago barriro ekiteko asmoa.

Lemoatxako bataila eremua ez da abandonauta itxiko. Lemoako Udalak museografia eta oin arte

egindako azterlanen zabalkun-dea zelan egin aztertzeko eskatu dau. Holan, "hurrengo edizinoaren inguruko xehetasunak zehazten" dabiz bai Lemoako Udala bai Aranzadi. BEGITU-ri azaldu deutsie-nez, "aurreikusita dago datorren urtean barriz martxan ipintea".



JAIK

Jai ugari auzo eta ermita inguruetan

Artaungo San Bizente, Argiñaoko San Adrian, Otzerinmendiko San Justo, San Lorentzo edo sanlontxoak Murtatzan, Azurrekan eta Zeberioiko Elizondon dira abuztuaren lehen hamabostaldian auzuneetako ermiten inguruan ospatuten diran jaiak. Andra Mariak Igorren eta ZeberioGANEN, San Rokeak Olazabal eta Bedian edo sanbartolomeak ospatuko dira Urkizun eta Zeberioiko Urizarren. Gero, San Antolin ospatuko da Igorren Garamendin eta Lemoatxan.

Erredakzinoa

Jai honeetan berezitasuna izaten dabe auzoetako ermitetan egiten diran mezak, sarri barauskarriagaz eta musikeagaz lagunduta. Horrez gain, auzo batzuetan bestelango ekintzak be antolatzen dira: karta-jokoak, lehiaketa gastronomikoak, herri kirolak, bola-jokoa eta erromeriak, berbarako.

Otzerinmendiko San Justo jaiak (Zeanuri)
Abuztuak 2, zapatua
14:30ean, herri bazkaria San Juston.
16:30ean, Mus/Briska Txapelketak.
Abuztuak 3, domekea
11:30ean, mezea. Gero, barauskarria eta txistulariak.
13:30ean, Tortilla eta Paella Txapelketak.
17:30ean, bola-jokoa.

Artaungo San Bizente jaiak (Dima)
Abuztuak 2, zapatua
18:30ean, txupinazoa.
Jarraian, Lourdes Soraluze XVI. Bola Txapelketea.
20:00etan, txitxi-burduntzia.
21:00etan, erromeria Kittu taldeagaz.
Abuztuak 3, domekea
12:00etan, umeentzako jolasak eta mozorro erakusketea.
18:00etan, herri kirolak. Azkoran eta trontzan: Irati Astondoa, Julien Larrea, Unai Aldape eta Amando Larrea. Harri-jasoten eta ingudean: Itsasne Apraiz eta Leire Astoreka.
20:30ean, Tortilla Txapelketea (izen-emotea 19:30era arte).
21:00etan, Bilbao anaiak trikitilariak eta errifearen zozketea.
21:30ean, txokolate-jana.
Abuztuak 4, astelehena
12:00etan, mezea San Bizenten.
Jarraian, barauskarria.

Argiñaoko San Adrian jaiak (Zeberio)
Abuztuak 2, zapatua
12:30ean, mezea; ostean barauskarria.

Murtatzako San Lorentzo jaiak (Bedia)
Abuztuak 10, domekea
12:00etan, mezea.
17:00etan, Briska Txapelketea (bikoteko bat gitxienez herrikoa izan behar da).

Azurrekako San Lorentzo jaiak (Lemoa)
Abuztuak 10, domekea
12:30ean, mezea San Lontxoko ermitan.
13:00etan, kopaua trikitilariakaz.
13:30ean, erromeria.
18:30ean, umeentzako jolasak eta Igel Txapelketea.

Igorreko Udeko Jaiak (Igorre)
Abuztuak 15, barikua (Andra Mari)
12:30ean, mezea, ostean trikitilariakaz kalejireia Goiko Plazaraino.
13:15ean, barauskarria, Goiko Plazan.
17:00etan, Briska eta Mus Txapelketak Bidebarriko plazan.
17:30ean, Igel Txapelketea Bidebarriko plazan.
18:30ean, umeen arteko herri kirolak Bidebarriko plazan.
19:30ean, txokolatea Bidebarriko plazan.
20:00etan, Sukar-egaz erromeria.

Bediako San Roke jaiak
Abuztuak 16, zapatua
12:00etan, mezea. Gero, mokautxoa eta trikitilariak.

Olazabalgo jaiak (Dima)
Abuztuak 15, barikua (Andra Mari)
12:30ean, Txakolin Eguna.
Abuztuak 16, zapatua (San Roke)
12:00etan, meza nagusia.
12:30ean, Umeen Bola Txapelketea.
13:30ean, Nagusien Bola Txapelketea.
17:00etan, umeentzako jolasak (bits jaia eta urrezko puzgarriak). Gero, umeentzako baloiak eta txokolatea.
19:30ean, Tortilla Txapelketako

aurkezpenak.
20:30ean, bertso saioa: Aissa Intxausti, Koldo Gezuraga, Ekhi Zuluaga eta Aiala Irurtia. Gero, errifearen zozketea.
Abuztuak 17, domekea (San Roke txiki)
14:00etan, auzo bazkaria.

Urkizuko San Bartolome jaiak (Igorre)
Abuztuak 23, zapatua
12:00etan, mezea. Ostean, barauskarria eta herriko trikitilariak.

San Antolin jaiak Garamendin (Igorre)
Abuztuak 31, domekea (San Antolin)
12:00etan, mezea. Ostean, barauskarria eta herriko trikitilariak.

San Antolin jaiak Lemoatxan (Lemoa)
Urri lehenengoak 2, martitzena (San Antolin)
12:00etan, mezea San Antolinen. Ostean, kopaua.
13:00etan, azkolarien erakustaldia. Mendieta Herri Kirol Taldea.
14:00etan, Baba Lehiaketako lapikoen aurkezpena: "Urrezko Lapikoa" + 100 euroko bonua herriko komertzioetan erabilteko.
16:30ean, erromeria Joxe Mendizabalegaz.
Autobus zerbitzua egongo da San Antolinera igoteko. Ordutegia: 10:00-15:00/17:00-21:00.
Lemoatxan mahaia gordetea gura daben taldeek edo norbanakoek udaletxean emon behar dabe izena abuztuaren 18a baino lehen.



MUSIKEA

Zeinkek oholtzak itxiko ditu urte amaieran



Mikel Muesas, Jokin Uriarte eta Aitor Ipiña.

Erredakzinoa

Zeinke taldeak agur esango deutse oholtzeei, *Unea heldu da* bireagaz. Albistea Zeinke 2015ean jaio eta hamar urtera heldu da. Gaur egun Jokin Uriarte (gitarra eta ahotsa) lemoaztarrek, Aitor Ipiña (bajua) billaroztarrek eta Mikel Muesas (bateria) zornotzarrek osotuten dabe Zeinke. Datorren bost hi-

leetan, abuztutik abendura arte sei kontzertu eskainiko ditue, atzen urteetan alboan izan daben publikoari agur esateko. Abuztuaren 1ean Lemoako jaietan hasiko dau hirukoteak *Unea heldu da* birea eta ostean, beste bost kontzertu eskainiko ditue urtea amaitu orduko. Urri lehenengoaren 5ean be Arratian izango dira, Arteako jaietan. Urri lehenengoaren 10ean be kon-

tzertua izango dabe baina iragarteko dago lekua. Urri bigarrenaren 17an Ugaoko Dorretxea Herriko Tabernan izango dira eta zemendiaren 20an iragarteko dagoan beste kontzertu bat izango dabe. Atzenengo emonaldia, Zeinkeren etxea izan dan Lemoako Karabie Gaztetxean izango da, abenduaren 13an.

Diskografia

Atzen hamarkadan Zeinkek hiru lan argitaratu ditu. Lehenengo maketeak taldea sortuteagaz batera ikusi eban argia 2015ean. Hurrengo urtean zortzi kantako *Sormena*, *Kemena* diskoa kaleratu eban taldeak, autoekoiztita. Horren ostean taldekideen aldaketak eta pandemia bat tarteko, urte gorabeheratsuak izan ebazan taldeak eta bigarren diskoa ez zan 2021era arte argitaratu, hau be autoekoiztua, sei kantako *Antiheroiak*. Horrezaz gainera, hainbat kanta soltu eta beste proiektu batzuetan hartu dabe parte, besteak beste, *20 urte harriketarrak* kantan.

MUSIKEA

Heitxik kontzertua eskainiko dau Zeanuriko jaietan

Erredakzinoa

Abuztuaren 16an, 21:30ean, Heitxi gorabidean dabilen artista Zeanuriko jaietako oholtzara igongo da, euskal soinu tradizionalak elektronika garaikideagaz buztartuz plazea jantzan ipinteko. Heitxi Eider Etxeandia zornotzarren izen artistikoa da eta lehiaketa, erromeria eta umeentzako ikuskizunetan hezia, gaur "euskal musika eszenaren ahots oparoenetakoa" da, Baga Biga euskal musikearen komunitatearen arabera. Zuzenekoetarako, andrek osotutako taldea batu dau Onditz Ugarte, Ane Falagan, Urtza Jauregi eta Garazi Arriaga musikariakaz.

Heitxiren musika estiloa barrikuntzearen eta zuztarren arteko konbinazinoa da, izan be, trikitixea eta panderoa moduko euskal instrumentuak elektronika modernoagaz konbinetan ditu. Holan, modernidadea eta tradizioa buztartuta, elektro-

triki-pop moduan definidu daitekean soinu-hizkuntza barribaten parte da Heitxi. Aurten argitaratu dau, bakarka, bere lehenengo diskoa: *Berreraikitze aroa* eta bertoko abestiak eskainiko ditu Zeanurin. Holan definituten dau Heitxik bere proiektu musikala: "Begirada zintzo, proiektuak bidaia emozional bat egitera konbidatzen dau entzulea, barrura begiratzera, norberaren zuztarrek ulertzea eta zaurgarritasun zein sendotasunak goraiatzzea oinarritzat daukazan bidaia".



Areatzako Herriko Jaiek

Gure

irastetxeak

Euskalduna

kalidadezkoa

herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI Tel.: 94 631 32 28 Lemoa	Ikastola Arratia HI Tel.: 94 428 78 15 Artea
Ugarana HI Tel.: 94 631 55 32 Dima	Arratia BHI Tel.: 94 428 79 34 Igorre
Zubialde HI Tel.: 94 648 06 82 Zeberio	Areatzako Herri Eskola Tel.: 94 673 90 93 Areatza
Zeanuri HI Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri	I. Zubizarreta HLHI Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Haur Hezwuntza

Lehen Hezwuntza

Dorrigorrezko Digarren Hezwuntza

Datxilergoa

Hezwuntza Zinloa

2 urtekin 13ra

AGENDEA

ABUZTUAK 1
AREATZA

Ikasgela zabalik. Aste barruan 08:00retatik 21:00etara eta astegoienetan, 09:00etatik 21:00etara.

Urri lehenengoaren 25era arte, Areatzako Mendi Martxan izena emoteko epea zabalik www.rockthesport.com/eu/ekitaldia/areatzako-mendi-martxa-2025 helbidean.

RURALTXA proiektuaren esparruan sortutako argazki erakusketa ikusgai Parketxean. Erakusketeak mendiko abeltzaintza jardurearen, habitaten biodibersidadearen eta emoten dabezan onuren arteko hartu-emona esploratzera gonbidatzen dau.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO
Urri lehenengoaren 25era arte, bialdu daitekez argazkiak begitu@begitu.eus helbidera.

ARTEA
19:30ean, Ernairen *Ekin eta bultza askatasunera* dinamikearen aurkezpena, gazte argazkia eta txitxi-burduntzia Santamafien.

IGORRE
08:00retatik 22:00etara, ikasgela egunero zabalik Kultur Etxean.

LEMOA
08:00retatik 21:00etara, ikasgela egunero Kotxepinen zabalik.

San Antolin egunerako, urri lehenengoak 2, Lemoatxan mahaia gordetea gura daben taldeek edo partikularrek udaletxean emon behar dabe izena abuztuaren 18a baino lehen.

Lemoatx Trail martxa zein lasterketetarako inskripzioa egiteko aukerea zabalik labur.eus/Lemoatxtrail helbidean.

San Inazio jaiak. Abuztuaren 3ra arte.

UBIDE
08:00retatik 21:00etara, Lopena espazioa zabalik egunero.

ZEANURI
Batxiler eta unibersidadeko ikasleentzat goizeko 08:00retatik gaueko 21:00ak arte ikasgela zabalik egunero. DBHko ikasleentzat, astelehenetik eguenera 17:00etatik 19:00etara.

ZEBERIO
Urri lehenengoaren 1ean izango dan indaba-janerako txartelak salgai Herriko Dendan. 5 urtera arte doban; 6tik 12ra, 15 euro eta 12 urtetik gora 20 euro.

ABUZTUAK 2
DIMA

Artaungo jaien hasikerea. 18:30ean, txupinazoa; jarraian, Lourdes Soraluze XVI. Bola Txapelketea; 20:00etan, txitxi-burduntzia; 21:00etan, erromeria Kittu taldeagaz.

LEMOA
02:30ean eta 05:00etan, jaietatik bueltetako autobusa, Correos-en.

ZEANURI
Otzerinmendiko San Justo jaiak. 14:30ean, bazkaria San Juston; 16:30ean, Mus eta Briska Txapelketak.

ZEBERIO

San Adrian jaiak Argiñaon. 12:30ean, mezea; ostean barauskarria.

ABUZTUAK 3
DIMA

Artaungo jaiak. 12:00etan, umeentzako jolasak eta mozorro erakusketea; 18:00etan, herri kirolak. Azkoran eta trontzan: Irati Astondoa, Julen Larrea, Unai Aldape eta Amando Larrea. Harri-jasoten eta ingudean: Itsasne Apraiz eta Leire Astoreka; 20:30ean, Tortilla Txapelketea; 21:00etan, Bilbao anaiak trikitilariak eta errifearen zozketea; 21:30ean, txokolate-jana.

ZEANURI
Otzerinmendiko San Justo jaiak. 11:30ean, mezea; gero, barauskarria eta txistulariak; 13:30ean, Tortilla eta Paella Txapelketak; 17:30ean, bola-jokoa.

ABUZTUAK 4
AREATZA

14:00ak arte, *Zahartzaroaren edertasuna argazki* Lehiaketarako argazkiak udaletxean aurkezteko atzen eguna.

ARTEA
Jaietako herri afarirako txartelak eskuragai Herriko Bentan eta Izar Zurian, 20 euro. Hilaren 26ra arte.

DIMA
Artaungo jaien atzen eguna. 12:00etan, mezea San Bizenten; gero, barauskarria.

ABUZTUAK 8
UBIDE

Podologo zerbitzua. Udaletxean dago

izena emoteko orria.

ABUZTUAK 10
BEDIA

San Lorentzo jaiak Murtatzan. 12:00etan mezea; 17:00etan, Briska Txapelketea (bikoteko bat gitxienez herrikoa).

LEMOA
Azurrekako jaiak. 12:30ean, mezea San Lontxon; 13:00etan, kopaua trikitilariakaz; 13:30ean, erromeria; 18:30ean, umeentzako jolasak eta Igel Txapelketea.

ABUZTUAK 14
ZEANURI

Andra Mari Jaiak. 20:00etan, txupinazoa. Hilaren 17ra arte. 02:30ean eta 05:00etan, jaietatik bueltetako autobusa, autobus geraldokuan.

ABUZTUAK 15
DIMA

Olazabaleko jaietako lehen eguna. 12:30ean, Txakolin Eguna.

IGORRE
Andra Mari Eguna. 12:30ean, mezea, ostean trikitilariakaz kalejirea Goiko Plazaraino; 13:15ean, barauskarria, Goiko Plazan; 17:00etan, Briska eta Mus Txapelketak Bidebarrin; 17:30ean, Igel Txapelketea; 18:30ean, umeen arteko herri kirolak; 19:30ean, txokolatea; 20:00etan, Sukar taldeagaz erromeria.

ABUZTUAK 16
BEDIA

San Roke jaiak. 12:00etan, mezea; gero,

mokadutxoa eta trikitilariak.

DIMA
Olazabalgo jaiak. 12:00ean, meza nagusia; 12:30ean, Umeen Bola Txapelketea; 13:30ean, Nagusien Bola Txapelketea; 17:00etan, umeentzako jolasak (bits jaia eta urezko puzgarriak); gero, umeentzako baloiak eta txokolatea; 19:30ean, Tortilla Txapelketako aurkezpenak; 20:30ean, bertso saioa: Aissa Intxausti, Koldo Gezuraga, Ekhi Zuluaga eta Aiala Irurtia; gero, errifearen zozketea.

ABUZTUAK 17
DIMA

Olazabaleko jaietako atzen eguna. 14:00etan, auzo bazkaria.

ABUZTUAK 18
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

LEMOA
Urri lehenengoaren 3ra arte urri lehenengoaren 6an izango dan andramarietako bertso bazkarian (Onintza Enbeita eta Aner Euzkitze) parte hartzeako txartelak salgai udaletxean. Helduek 16 euro; umeek 10 euro.

ABUZTUAK 23
AREATZA

San Bartolome jaiak. 14:00etan, txupinazoa. Hilaren 30era arte.

Zahartzaroaren edertasuna argazki lehiaketako erakusketea jubiladuen lokalean.

IGORRE
San Bartolome Urkizun. 12:00etan, mezea; ostean, barauskarria eta herriko trikitilariak.
XXXVII. Igorreko Saria. Urbieta futbol zelaian. 17:00etan, Arratia-Erandio; 18:00etan, Erandio-Abanto; 19:00etan, Arratia-Abanto; 20:00etan, sari banaketea; talde txapeldunari eta jokalaria onenari.

URBIETAKO ZELAIAN	
IGORRE	
XXXVII. IGORREKO SARIA	
ABUZTUAK 23 ZAPATUE	
17:00	
	ERANDIO
18:00	
	ABANTO
19:00	
	ABANTO
20:00	
SARI BANAKETA: TXAPELDUNARI ETA JOKALARI ONENARI	
	

ABUZTUAK 25
ARTEA

Jaietako herri bazkari eta Mozorro Gaurako izen-emoteak zabalik, udaletxean urri lehenengoaren 2ra arte.

ABUZTUAK 26
ARTEA

Jaietako herri afarirako txartelak

erosteko atzen eguna Herriko Bentan eta Izar Zurian, 20 euro.

ABUZTUAK 28
AREATZA

Sandoni jaiak. Txupinazoa. Urri lehenengoaren 2ra arte.

ABUZTUAK 29
AREATZA

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik bueltetako autobusa, autobus geraldokuan.

ABUZTUAK 31
IGORRE

San Antolin Garamendin. 12:00etan, mezea; ostean, barauskarria eta herriko trikitilariak.

URRI LEHENENGOAK 2
LEMOA

12:00etan, mezea San Antolinen. Ostean, kopaua; 13:00etan, azkolarien erakustaldia. Mendieta Herri Kirol Taldea; 14:00etan, Baba Lehiaketako lapikoen aurkezpena: "Urrezko Lapikoa" + 100 euroko bonua herriko komertzioetan erabilteko; 16:30ean, erromeria Joxe Mendizabalegaz. Autobus zerbitzua egongo da San Antolineria igoteko. Ordutegia: 10:00-15:00/17:00-21:00. Lemoatxan mahaia gordetea gura daben taldeek edo norbanakoek udaletxean emon behar dabe izena abuztuaren 18a baino lehen.



Alarma Morea taldeak kontzertuak eskainiko dauz Areatza eta Lemoako jaietan

Abuztuaren 2an Lemoako jaietan eta 29an, 22:30ean, Alarma Morea talde zumarragarra Areatzako Gudarien Plazako oholtzara igongo da, festak euskerazko runbeagaz girotuteko. Ainhua eta Uxue Plagaro ahiztek, Amets Albisuk eta Nuria Cullak, gitarreak, perkusinoak, kajoiak eta bajuak lagunduta kantauko dabez erritmo jantzagarriak. Errunbea bakarrik ez, estiloen fusino alternatiboak be egiten ditue.

Andren burrukea eta ahalduntzea da taldearen zutabe garrantzi-tsuenetako bat, euskereagaz batera. Musikearen munduan eta gizar-tean emoten dan genero zapalkuntzeari aurre egiteko, musikearen bitartez, letrak eta melodiak erabilten ditue konzientziak astindu eta espazioak berreskuratzeke helburuagaz. Honeen ostean, Arene 6 punk-rock taldea igoko da oholtzara Areatzan.

KOMIKIA

Iman Olatu

IRAGARKI LABURRAK

DANERIK BULEGOA SALDU EDO ALOKATZEN DA
 Arrigorriagako erdigunean 43 metro karratuko lokala. Guztiz instalatuta eta altzariz horniduta. Interesdunek deitu 665 709 651 telefonora.

LOGELA BILA
 Lan eta ikasi modalidadean dabilen ikasle bat logela bila dabil Igorre edo inguruetan. Gixbenez urte birako beharko leuke logela. Interesdunek deitu 613 075 822 telefonora.

SALTZEAN DODAZ
 Lowepro argazkilaritza motxila gorria, neurriak: 26x34x11, prezioa: 35 euro. Umeentzako tipi ohea. 90x190 cm neurrikoa, 90 cm-ko zabalerako koltxoirako. Somierra zoru gainean. Kolorea: egurra eta zuria eta prezioa: 90 euro. Interesdunek deitu 661 273 192 telefonora.

EMOTEN DOT
 56 m² lur eta obra-hondakin eskaintzen da betegarria egiteko doban, eroatea barne. Interesdunek 607 482 499 telefonora deitu.

GELA BEHAR DOT ALOKAIRUAN
 Pisu konpartidu baten, persona bakar batentzako gela bat behar dot alokairuan. Telefonoa: 642 912 390.

MAHAIA OPARITZEN DOT
 Eskola adineko umeentzako mahai aproposa oparitzen dot. Telefonoa 630 363 971.

DORDOKEA TOPAU DOGU
 Dordoka bat topau dogu Igorren, San Juan auzoan. Zurea bada, 611 617 137 zenbakira deitu.

KIMIKAKO KLASEAK HARTU GURA DODAZ
 Bigarren Batxilergoko kimika klaseak euskeraz jasoteko nonoren bila nabil abuztuaren hasieratik, ordutegi malguagaz, gero, klaseak urte osoan zehar izateko asmoz zapatuetan ordu biz. Deitu: 638 889 851.

LANA BEHARGINA BEHAR DOGU
 Interna moduan lan egiteko persona bat behar dogu, Soziosanitario tituluduna. Interesdunek deitu 685 704 440 edo 635 207 386 telefonora.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 **Areatzako Udalak emondako *Dolu bat eta dolu bi* liburuaren ale bana.**

2 **Areatza Musik and Brewing Musika eta Kultura Elkarteak ateratako materiala.**

Amaia Saez (Arantzazu)
 Gorospe Carreño (Bilbo)



Abel Ortuzar (Areatza)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 23 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
 Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARÓ

NAIARA HORTZ KLINIKA
 Lehendakari Agirre, 19
 48140 Igorre
 94 631 52 26

BIZARGINAK
 BIZARGINTZA-ILEAPAINDEGIA
 94 607 78 33
 LEHENDAKARI AGIRRE 9, IGORRE

Ipini zure iragarkia Begitun 649 979 115 inigoirua@begitu.eus

KIRRU
 ILEAPAINDEGIA
 ROSANA eta ROBER
 SABINO ARANA 38
 IGORRE
 Tel. 94 631 92 00

GORBEIALDE
 LANDA GARAPENA
 ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO GARAPENEAN LAGUNTZEN

Jose Luis Corbacho
 pintura lanak
 Sabino Arana, 3. 3a
 Igorre 48140 Bizkaia
 Tel.: 94-673-70-87
 Tel.: 609-79-40-54

ZEKUTZE
 JATETXEA
 Sabino Arana, 34
 48140 IGORRE - Bizkaia
 Tel.: 94 631 52 83
 zekutzejatetxea@hotmail.com

Dia %
PEDRO
AUTOZERBITZU
 Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
 Tel. 94 631 15 26

begitu
.eus

Kili~Kili
 Arropa eta Produktuak
 Lehendakari Agirre 10 - IGORRE (Bizkaia)
 Tel.: 94 673 63 81

Zeaurutiko
udalak
eta

Jai
Batzordeak

jai
zeriontsuak opa deutsuet!



ZEAN
ZURI